



hutsuneak osatuz

Denok ezagutzen ditugu Euskal Herriko historiak dituen hutsuneak, eta hutsune horik bete gabe ditugu oraindik. Saiakera eta istudio on batzu eginak ditugu, baina historiaren espektroaren puntu asko aztertu eta osatu gabe dugu oraindik. Urrutiei joan gabe horra hor euskal nazionalismoak duen ikerketa historiko sakon baten eza. Hutsune hauk euskal historigile batzu ari dira betetzen. Julio Caro Baroja, Alfonso Otazu, Manuel González Portilla, Patxi Letamendia... eta zabalegia ez den "etabar" bat. Zerrenda honen barruan beste historigile bat ezaguna dugu: Emilio Lopez Adan, Beltza. Beraz, egile honen azkeneko liburu hau euskal nazionalismoak duen zenbait hutsune osatzera dator.

Globalki ikusirik liburu berri honen xederik aipagarriena egileak berak liburuari egindako sarreran adierazten duena da, gure ustetan: "gaurko egoerak aurrean aipatu ditudan aktualitate eta etorkizunari dagozkien lanak egitera bultzatzen du" adierazi ondoren. "El nacionalismo vasco, 1876-1936 liburuan agertzen diren karlismo eta aurreneko nazionalismoarekiko tesisen osagabetasunaren aurrean halako barruko min bat edo sentitu dut. Ezker abertzalegoaren multzo zabalak lan horri egindako arretak puntu horik zehazteko ahalegin bat egitea mugimendu ahaleginaren sorre-

raren hauzia argitzeko bahagarria izan zitekeela suposatzen eraman nau", dio Beltzak.

Sarrera interesgarri bat egin ondoren, lau atal handitan bereizten du egileak liburu. atal handi hauk zenbait apartadutan bereiztuak ere agertzen direlarik:

1- Karlismoaren izaera. 2- Kapitalaren pilatzea eta espaniolismo oligarkikoa. 3- Anarkismotik nazionalismo burgesera. 4- Proletargo nazionalistaren sorrera.

Liburuaren laburpen eta aurkezpen on baten bila balego irakurlea, sarrerara jo beharko luke. Ondoren go etaletan agertzen diren zehazta-

sunak eta deskripzioak alde batetara utziz, mugimendu karlistaren ezzagune batzuren azterketa zentratu egiten du lehenik; karlismo mugimenduan eta aurreneko nazionalismoan nabari den "Mediación" delako fenomenuaz kontsiderazio batzu egiten ditu bigarrenik, ondorengo hitzokin sarrera amaituz: "Honela, epealdi honen historia bitartekotza (mediazioa) bikoitz batena izango zen, nekazalgo eta proletargo alienatuen ezintasunarena beraien borrokei esanahi iraultzaile bat emateko zentralizapen burgesaren aurka alde batetik, eta dominatzaileak eta zapaltzaileak ziren bi multzo soaiali egindako zuzendari-tza politikoaren transferentziarena bestetik, multzo sozial hauk jauntxoak hasieran eta burgesak gero, beren klase-egoeraren arabera, borroka herrikoia zapaltzaileen arteko konpromisozko ondorioetara eramaten saiatuko direlarik. Hau da liburuaren gai nagusia".

Hitzok irakurrita gero, irakurleak liburuaren kapituluetan barruratzeko badu gogorik. Aurreneko atalean Hego Euskal Herriko Aintzinako Errejimena aztertzen da.

Klase herritarrak alde batetik, eta klase dominatzaileak bestetik bereizten eta aztertzen dira hasieran, karlismoaren sustraiak, motibazioak eta sorrera gero sakonki estudiatzeko. Don Carlos-en alde borrokatu zuten multzo sozialen sailkapena egin ondoren, bakoitzaren egiazko motibazioak deskribatzen dira. Egilearen ustez motibazio hauk seriooki aztertzen ez badira karlismoaren fenomenua ezin uler daiteke, edo sasi-interpretazioak egiteko arriskua gaudeke. Aintzinako Errejimenaren krisisaldian eta beronen indizentzian karlismoaren sorreran zentratuko da batipat kapitulu. Euskal gizarte tradizional baten aurrean aurkitzen gara. Estructura produktiboa nekazal sistema bat izango da, baina nekazal kapitalismoarik ez dugu aurkituko. Produktoreak eta lurjabeen arteko giza-harremanak zeharo bereziak dira, tradizional estructura bati, cuasi-feudal nahiago bada, dagozkialako, gizarte honek aintzinako sistema feudalarrekin iraupen garbi bat duelarik. Sistema honen krisisaldiak harreman ekonomiko eta juridiko bereziak hauk kolokan jarriko ditu, nekazal gizartearen giza-harreman guztiak zintzilik jarri. Krisisaldi hau aldaezinezkoa zen, barneko kontraesanek horreraz zeramate-lako, baina prozesoren gorabeherak eta ondorio konkretuak kanpoko arrazoi batzuei "esker" euskal gizartearen kontra bueltatuko dira.

Ondorengo kapituluak, ezaguna-
goak bazaizkigu ere, metodoloji
berberari jarraitzen zaio. Kapitala-
ren pilatzeari eta oligarkismo
españolistari dagokienez
beroiari sorrera argi bat emanez,
euskal oligarkiaren politika espño-
listaren zergatiak aztertzen ditu egi-
leak, kanpo arrazoi batzuren jite de-
terminantea baieztatuz. 1876. urte-
rako Euskal Herriaren integrazioa
Espainiako nazio-estatuaren baitan
jadanik eгина zen, eta orduko euskal
oligarkiak ez zuen oraindik estatua-
ren politikaren nagusigoa. Aitzitik,
data horren ondoren eta oligarkia
honen egokiera testuinguru politiko
eta ekonomiko berriari dela bide,
orduan eta ez lehenago hasten da
multzo sozial hau nagusigo politi-
koa eskuratzen espñoalista derrigo-
rez bilakatuz.

Aranismotik nazionalismo gur-
gesera deritzea atalean Beltzak
aranismoaren sorrera aztertu on-
doren, gerra-aurreko nazionalismo
arte doan epealdiaren historikizun
guztiak adierazten ditu. Egia esan,
gure ustez behintzat, egileak lortu
egin du bere xedea, El nacionalis-
mo vasco liburuan baino askoz gar-
biago eta zorrotzago aztertu baitu
hauzi hau, atal hau liburu horren
osagarri bilakatuz. Azkeneko kapitu-
luan, proletargo nazionalistaren sor-
reri dagokiona, berri ere datorki-
gu egilea "bitartekotza" fenome-
noaz. Honela, behin aztertu proletar-
go horren sorrera ondoren, beronen
motibazioak zuzendaritza politikoa-
ren transferentzia burgesia lokalari
egiterakoan esplikatu digu Beltzak.

Hemen dugu beraz Euskal Herri-
aren historiarekiko liburu sakon bat,
irakurtzeak penarik mereziko lukee-
na alegia. Oraingo honetan ezereen
kritikarik ez dugu egin, deskribapen
bat soilik baizik, laburregi izanarren
lekurik ez baitugu. Baina zerbait
esatekotan, erdaraz idatzitako liburu
bat dela esan beharra dago. Euskal
historia euskaraz egin beharko li-
tzateke ordea. Zorionez Beltza ere
konturatu da hontaz eta Ipar Euskal
Herriaren Historia deritzan azkene-
ko saioan euskaraz aritu da. Ea he-
mendik aurrera historigile "vasco"ek
etsenplu berberari jarraitzen dioten.

Kapitulu honetan karlismoaren
sustraiak eta motibazioak sakonki
eta garbiki esplikatzen dira. Hauzi-
aren muina hauxe dateke: karlismo
mugimendua osatzen zuten multzo
sozialen motibazio zehatzak, bai
eguneroko bizimodu mailan, nola
lan aldetik, hala giza-harreman ikus-
pegitik, aztertzen direnean.

JOSE LUIS ALVAREZ

DERSU UZALA

Kurosawa, 67 urte, japoindar zine direktoreetatik ezagutuene-
takoa eta Mendebaleko iturrietatik gehien edan duena da. Bere zine-
rako motiboak Shakespeare, Gorki, Pirandello, Dostoievski, Sime-
non edo Ed. McBainen aurkitu ditu. Honen hiru filma hobereneta-
koak Mendebaleko hainbat direktorek kopiatu ditu. Honela: John
Sturgesen Los siete magnificos, Los siete samuraisen kopia bat da;
Martin Ritbek berriz, Rashomon filmatik Cuatro Confesiones egin
zuen; Sergio Leonek Yojimbo filmatik, Por un puñado de dólares
egin zuen.

Hogei bat filma egin ditu: Ikiru
/ Vivir, El infierno del odio, Barba
Roja, Dodeskaden. ... Azken hau-
egin ondoren bere burua urkatze-
ko asmoak egiten ditu (1971-XII-22)
bainan kasualitate batez ez da hil-
tzen.


Ordutik ez da inon agertzen, eta
1975. urtean Rusian Dersu Uzala fil-
ma egiten du, Dersu Uzala filma, ga-
rai gabeko filma bat da, naturari
abesti bat, abentura filma bat... Ar-
seniev ikusketari bat da eta Dersu
ehiztaria. Honen bere emazte eta se-
mea nafarreriz galdu ditu eta bizi-
tzeko arrazoien bakarra naturarekiko
harremanak ematen dio (eguzkia eta
hilargia dira pertsonai garrantzitsu-
enak). Bi pertsona haien arteko adis-
kidetasuna agertzen da filma hone-
tan.

Filma mota honek beste hainba-
tengana eramanten digu pentsamen-
dua: Dovjenko, Flaherty, ... baita ere
Los dientes del diablo/ The Sauvage
innocents egin zuen Nicholas Rayen-
gana. Filma guzti hauetan lehen-
goaren naturarenganako maitasuna
agertzen da. Kamara ez dadila ino-
dik agertu. Natura bakarrik bere
edertasun guztiz: errealitatea da adie-
razpenbidetzat hartzen dena.

Ez da rousseauzale edo filma
simple bat: hirietatik bizitzara igaro-
tze bat da, lehenago bizimoduaren in-
bidia. Egun 1978. urtean ero, misti-
ko, abentureroen amets bat bihurt-
zen ari den horixe goraiatzan du
filma horretan. Hala ere, sentimen-
tu zaletasunik, kontzientzi faltsurik
ez da agertzen filman.

Dersu Uzalaren era lehen
pertsona eгина dago. Hori filman bis-
tako bi pertsonai horien bitartez lo-
tzen du. Garai eta imaginaren bitar-
tez filmaren esanahi garrantzitsua
agertzen digu: ez dela pertsonai
batzuren filma, izenburutik azkenerei-
no pertsonai bati egiten zaion ome-
naldia baizik.

1910. urtean asten da historia.
Arseniev, Korfouskayara iristen da.
Dersuren hilobi ondoko bi zuhaitz.



Kurosawa bere interpretearekin Parisen (1976)

galantak moztu dituztela ikusten
du. Moztu, etxeak egiteko egin dute.
Lehen ohian zena orain etxez betze-
ko; hemen hasten da flaschback bat
bi zatitan: bata Dersurekin topatu ze-
nean 1902. urtean eta bestea ia Der-
su hilzorian zegoenean 1907. urtean.

Lehen zatian Kurosawak
Dersuren erretrato egoki bat, honen
solidaritate sena eta ezaguera azpima-
rratuz egiten du. Bigarren zatian erre-
tratoa gehiago iluntzen da: Dersu za-
hartua, eta bista galtzen ari denez,
Taigan ezin da jarraitu. Honen
ondorioz Arsenievek egiten dion kon-
bitea -Jabarousk hirira bizitzera joa-
teko konbitea - onhartzera behartua
dago. Baina hirian ezin dela bizi las-
ter konturatzen da.

Kondaira ximple hau sakontasun
eta lasaitasun handiaz agertzen digu,
inongo etiketarik eraman ez dezake-
en lan eder eta bakar batetan bihurt-
zen du.

JOSE JULIAN BAKEDANO